



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ballet National de Marseillek eta ICKk *Apparition* lana taularatuko dute, Gustav Mahlerren *Kindertotenlieder*-retan oinarritutako proiektuaren lehen parte

- Emio Greco y Pieter C. Scholten koreografoek sortua, *Apparition* diziplina anitz batzen dituen pieza da, naturako soinuez eta animalien kantuez eratutako soinu-paisaia baten barruan umeei ahotsa ematen diena.
- Eszenaren pisua, Ballet National de Marseille eta ICK taldeetako dantzariengan eta ikuskizunean partaidetza aktiboa izango duten Bilboko Koral Elkarteko Haurren Abesbatzako 14 umerengan egongo da.
- *Kindertotenlieder* (Hildako umeei eskainitako abestiak), bost liederrek osatutako Gustav Mahlerren jatorrizko lanak, intuizioaren, itxaropenaren eta xalotasunaren indarra jasotzen zuen, aktibismo mota gisa.
- Ikus-entzuleek ostiralean, urtarrilaren 19an, eta larunbatean, 20an, gozatu ahal izango dute ikuskizunaz, arratsaldeko 20:00etan, egun bietan.

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 15ean. - Ballet National de Marseille & ICK asteburu honetan helduko dira Bilbora (ostiralean, urtarrilaren 19an, eta larunbatean, 20an, arratsaldeko 20:00etan), proposamen ikusgarria eskaintzeko, ***Apparition*, Emio Greco eta Pieter C. Scholten** koreografoek bultzatzen duten eta **Gustav Mahlerrek** Friedrich Rückerten poemak oinarri hartuta konposatu zituen ***Kindertotenlieder*-etan** (Hildako umeei eskainitako abestiak) oinarritutako asmo handiko proiektuaren lehen parte. Mahlerren lan hark bost lieder zituen, eta intuizioaren, itxaropenaren eta xalotasunaren indarra jasotzen zuten, aktibismo mota gisa. Izpiritu hori bera daramate Ballet National de Marseillek eta ICKk euren lanera. Bigarren parte ere izango du lanak, *Disparition*, aurrerago ikuskizun independentea izango dena.

Arriaga Antzokiak *Apparition* lanaren eszenan jartzea jasoko du orain, lehen parte, duela oso denbora gutxi estreinatu dena, joan den abenduaren 2an, hain zuzen ere, Marseillako Operan.

Apparition diziplina anitz batzen dituen pieza da, naturako soinuez eta animalien kantuez eratutako soinu-paisaia baten barruan umeei ahotsa ematen diena. Gustav Mahleren *Kindertotenlieder* egokitu du **Franck Krawczyk** musikariak, haurren koru, piano eta musika bandarako egokitua, Leos Janaceken doinu morabiar batekin eta Hans Eisleren abesti iraultzaile batekin osatua. Ballet National de Marseilleko eta ICKko dantzarien jarduketa leun eta halaber ikusgarriarekin batera, azpimarragarria da **Bilboko Koral Elkarteko Haurren Abesbatzako** 14 umeren partaidetza, **Jose Luis Ormazabal**en zuzendaritzapean. Umeen ahots taldeak oso leku garrantzitsua betetzen du ikuskizunean. Gainera, Emio Greco eta Pieter C. Scholtenek **Ruben van Leer** bideo artista holandarrarekin lankidetzan dihardute irudiak proiektatuz umeen izpiritu ezkutua animatzeko

Bidaia sentsoriala

Dantzariak gidatuta, argia, mugimendua eta musikarekin bere sentsazioen funtsa bilatzera gonbidatua sentitzen da ikuslea, espazio sentsorial desberdinak igaroz. *Apparition*-ek ez die bakarrik ahotsa umeei ematen, baizik errealizazio espazio bat ere bada. Abesterako orduan kontzentrazio maila intentsitate handikoa bada, bere interpretazioaren hauskortasunak, nahita, haurtzaroaren ikuspegia ere gogorarazten du. Desberdintasun horrek helduen munduarekiko muga irudikatzen du. Hezurramitzen duten xalotasunak eta bapatekotasunak obraren ikuspegi berri bat gauzatzeko ahalmena ematen dute, bereziki pianoaren intimitateari esker durundi egiten duena.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 40 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Kindertotenlieder - Apparition

Kontzeptua eta koreografia · **Emio Greco / Pieter C. Scholten**
Kontzeptu musikala eta transkribapena · **Franck Krawczyk**

Marsellako Balet Nazionaleko eta ICK-eko dantzariak
Beatrice Cardone, Pedro Garcia, Gen Isomi, Kengo Nanjo, Florine Pegat Toquet, Aya Sato, Nahimana Vandebussche

Bilboko Korral Elkarteko Haurren Abesbatza
Aitana Mella, Ane Pocino, Ane Thate, Mirari Fernández, Josebe García, Aimar De la Fuente, Lorea Elorriaga, Begoña Elua, Manu Urkijo, Natalia Chillón, Nicolás Sierra, Inés Ruiz, Elixabete Chirapozu, Mateo Ortiz de Urbina

Abesbatzako zuzendaria · **José Luis Ormazabal**

Pianoa · **Franck Krawczyk**
Filma · **Ruben Van Leer**
Argiztapenaren sormena · **Henk Danner**
Jantziak · **Clifford Portier**
Dramaturgia · **Jesse Vanhoeck**
Regidor general · **Rémi d'Apolito**
Agintzaile nagusia · **Philippe Groperrin**
Soinu ingeniaria · **Jean-Christophe Aubert**
Bideo agintzailea · **Alexandre Pago**
Errepikatzailea · **Thierry Hauswald**
Jostunak · **Nicole Murru**

Produkzioa · **Ballet Nacional de Marsella e ICK**
Koprodukzioa · **Theater aan het Vrijthof Maastricht(NL), Nederlandse Dansdagen (NL), Theater de Meervaart (NL), Ravenna Festival (IT), Cankarjev Dom Ljubljana (SL), Les Théâtres de la Ville de Luxembourg(LB)**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - TEATRO ARRIAGA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus